

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ**\* 111n. Zenbakia **Irailla 1987**



**MUNGIA:**  
**LAUAXETA'ren**  
**IRUDIA**

**AYALA LURRALDEA ZEAR**

Gure mendi-zaletasunak bultzatuta, sarritan ibilliak gara Ayala'ko lurraldeak zear, lurralde zabal orretan diran ikuskizunak arakatuta gozatuz, ikusgarri eta ezaugarriak iduritu jakuzalako euzkotar batentzat, bere Aberria benetan ezagutu nai dabenarentzat.

Lerro oneik idatziten asi baiño egun batzuk lenago, Amurrio'ra joan-bear bat izan genduan eta erri orretan aurkitu, bertatik aneineurkin edo kilometro bi ingurura dagoan Zeraobe muño gaiñea, ara igon gintzazan, Amurrio'tik Errespalditza'rako bitxabalari jarraituz, muño-gain orretan aurkitzen dan Ayala'ko Batzar-lekua baten geiagotan ikusi eta argazki batzuk aterateko asmoz.

**BATZAR-ETXEA**

Aipatu dogun leku orretan aurkitzen da orain ea berreun urte jaso eta arrizko ormaz sarratutako leku zabal bat. Neurkin eta erdi edo iru neurkiñeko orma eta 17 x 17 neurkin laukian dituala, erdi-erdian baita arri-landuzko mai zabal bat, eta bere inguruan arrizko jarlekuak dituala. Ate burdiñezko bat dau eta, ategaiñean ikurtza apain bat erdi-erdian otso bi zutunik baiño besterik ikusten ez dala. Ikurtza ori lenago Bizkai'ko ikurtza bezala, leoi baten erpen erdian. Eta, ikurtza orren eskoma-aldean arri-nabarrezko supin (placa) bat eta beratana auxe ipinten dau, guztiz argi ikusten ez bada be: "Campo de Zeraobe. En este sitio facian sus Juntas Generales los Concejales y Alcaldes, Merinos, Escuderos, Fijos Dalgos, Homes buenos, mecinos e Universidades de la Tierra de Ayala. Para entender en sus fechos, negocios le armadas. Por montaneaobes por Fueros a repidue de Campanear".

**BIZKAITARRAK?**

Iragarki orrek adierazoten dauskunez, leku orretan bilduten ziran aldi aretan Ayala'ko lagepean aurkitzen ziran 36 edo 38 errizkaren ordezkariak, bertako arazoak erabagi eta oitura ziran eginkizunak ontzat artzeko.

Ayala'ko lurraldea, gure ertxiz, bertako biztaleen antzak, basetxearen ertziak eta erak euki daben bizi-jokabidea ikusita, gaiñera pizka irakurri dan edozeiñek dakian lez, Bizkai'ko oiturak, egikerak eta orreikaz sortutako lagiak, Bizkai'ko bardiñak ziran, bai euren lagiak idatzi barik euki ebezan aldiaren eta, bai 1.373'gn. lenagoz euren lagiak idatzi ebezanetik aurrerantzean be, lage orreik Bizkai'koak gandik oso alde gitxi dabelako. Barrizketa bat egin eben 1487'gn. baiña, orreitan be ez da aldakuntza aundirik ikusten. XVI gizaldian Araba'ko lurralde eta lagepean bat egin ziran arte.

**IDAZLEEN UTSAK**

Zeraobe batzar-leku orretan bilduten zirananak, ez ziran beti errizka bardiñak, bada Ludio eta Orduña ingurutzen daben Arrastibia eta Urkabuztaiz Bizkai'ko lage-pean urte askotan egon ziranak, Ayala'ko agintzapean jarri ziran, beragaz batera Araba'z geroago bat egiteko. Jazokun orreri buruz, baiña, Araba'ko edeztiatzaz idatziten daben idazle guztiak ez dira jakitun. Irakurri barri dogun "El Fuero de Ayala" irakurri genduanen arrituta geratu giñan: ara zer diñoskuen gizon jakitun orreik: "Montón, en su Diccionario de Derecho civil foral" diño berak "Fuero vizcaino rige en cuatro Hermandades de Alava, que son: Arrastaria, Aramayona, Ayala y Llodio".

Baita idatzi orretan berean beste au be: "Según D. Vicente Sánchez-Tello, en sus Lecciones de Derecho civil foral", "el Fuero de Vizcaya se aplica en las Hermandades de Ayala, Llodio, Arrastaria y Aramayona en la provincia de Alava". Orreitan ikusten da, beste españiar idazle asko lez, oso ezjakiñak dirala euzkotarron lenagoko izakera eta edestiaz, bada, lenago esan dogunez, lurralde orreik eta geiago bere Bizkaiarenak izan zirala gure birriz-aititen aldira arte.

**IKUSGARRIAK**

Ayalako lurraldean, ba-dira beste ikusgarri asko be: dorre-etxeak, basetxe zabalak eta, batez be Kexana'ko dorre-etxe ospetsua ta bere eleiza eta beratana "Pedro Lopez de Ayala"ta beren emazteari eskiñitako ildarri gareztiak.

Baita Artzeniega'ko Dorre-etxea, bertako eleiza erromanikua eta Artea'ko (Encina) Ama'ren eleiza gotikua eta abar luze bat. Eta, zelan ez inguru artako mendi ikusgarriak Garobel (Sierra Salvada) goitik asita berengo barrenera arte? Toki ta inguru ikusgarri guztiak emen aipatzeko, luzeegi egingo litzake idazlanau eta, beste baterako lagako doguz.

Euzkotarra! ezagutu Euzkadi ez jatzu damutuko-eta.

## OIARTZUN'EN ILLETEA

Maite genduan gure D. Manuel Lekuona, Kardaberraz Alkartearen Zuzendaria. Ille batzuk dirala osasuntsu ikusten genduan, baiña, urteak aurrera eta makalaldiak be aurrera... gure D. Manuel'eri azken-agurraren ordua eldu jakon.

Sasoiz eldu giñan Oiartzun'era illetan kideko izateko. Ordubete lenago. Eta erriko eleiza aundi ta ederra beteten asita egoan. Eres-aldi ederra entzunez itxaron geuntsan orduari, abadeak eta gotzaiñak sartzen ikusten genduzala.

Eleizan jente-artean ginzatzenak zenbatu barik, irurogei ta amar abade ta lau Gotzain agiri ziran altaringuruan. Gotzaiñak: Bilbo'ko Larrea jauna, Gasteiz'ko Larrauri jauna, Donosti'ko Setien jauna eta Donosti'ko Gotzain izandako Argaia jauna. An egoan Beneditarren abat dan Mauro aita be. Gotzain Ordezkarri dan Pagola jauna ta Don Manuel'en senide diran abadeak be ikusi genduzan.

Berbaldi gogoangarria egin eban Setien Gotzaiñak: Asikeran, Eleizearen ordezkarri lez, parka-eske agertu zan, guda-inguruan Lekuona jaunari bear dan lako "tratu" emon ez jakonelako eta gero bere berbaldia iru zatitan banatu eban: Merezi dau euskaldun izateak, merezi dau sinistedun izateak, merezi dau apaiz izateak.

Illeta ostean jakintza-arloan lanean diarduen adiskide asko agurtzeko aukerea izan genduan. Agintaritzasaillekoak be asko ikusi al izan genduzan: Gipuzkoa'k, Bizkaia'k, Araba'k eta Nafarroak omenaldi ederra eskiñi eutsoen egun orretan.


Agur D. Manuel! Gero arte!

D. Manuel'eri agur egiteko ordu onetan ez dogu aitzu gura, berak euskereari buruz izan eban jokabidea. Bake-zalea zalako, idazkera barria eta atxe batzuk sartzea be ontzat artu eban, baiña gero gauzak nondik nora joiazan ikusi ebanean, oso-osoaan biurtu zan euskalkien eta erriak darabilen euskerearen aldeko eta orregaitik atera eban Euskaltzaindiaren Lendakaritzatik eta bere ordez Villasante aukeratu. Sarritan agertu euskun D. Manuel'ek egoera larri arek bere barruan sortu eban samintasuna, Euskaltzaindiak artu eban jokabide barria berak ain maite eban euskerearentzat kaltegarri izango zala ikusten ebalako. Eta gaur geroago ta argiago ikusten dira euskereari sortu jakozan kalteak. Erabagi orreik artu ziran egunetan Arrantzazu-inguruan sortu zan ekaitza ez da aitzuko euskerearen kondairan.

Dana dala, D. Manuel'ek lan eta lan jarraitu eban lez, bere jarraibidea artu eta aurrera egin bearko dogu, erri-maillako euskerea indartzen eta zabaltzen, gure sendietan eta oiñarriko batzarretan euskeraz berba egin daiten. Uriolearen indarraren antzekoa aurka etorri arren, ez daitela galdu euskerea geure erruz beintzat.



*Manuel Lekuona*



*Ayala'ko Batzar-Etxea. Zaraobe'ko Muno-gaiñean.*

# LAUAXETA

## " L A U A X E T A "


Gazte gazterik maite zenduan  
Aberri menperatua,  
biotz barrendik sentidu zendun  
beren miñaren oiua;  
norbere ama ikusirikan  
indarkeriz zapaldua,  
zure bizia samindu jatzun  
biotz zauriz urratua.

Laguntza deia asmatu zendun  
seme leialen erara,  
al zan aiñean opaldu teko  
amaren ezbearrera;  
urtzi ta lurrak emon eutsuen  
bultzada garra ortara,  
buru ta biotz eskeindu ziñan  
Aberriaren miñera.

Lenen lenengo buruz argitu  
gizonen jakiturian,  
era berean, odolez gertu  
biotza maitasunean;  
zure izkuntzak urratu zitun  
bide barriak errian,  
zure biotza gori-goririk  
abertzaletasunean.

Mutil gaztea amets betean,  
zenbiltzan lanez josirik,  
luma bizi az erri argitzen  
zuzentasunen bidetik;  
erriarentzat gura zenduan  
askatasuna legetik,  
zure erriaz bat egin ziñan  
itz ta biotzez urturik.

Gero ondoren gaitz itzalena  
eldu zan gure errira,  
guda zakarra gorroto biziz  
erri ta mendietara;  
Gernikan artuz Gazteiz'era  
erun zinduzen iltera,  
Jaingo maitasun ta-Aberri garrez  
odola-ixuriz lurrera.



OMENALDIA MUNGIAN  
1.987.eko Bagillak 27

*Agur Lauaxeta maite  
izarrak dagoz zeruan  
batzuk dizdizago;  
zure argia dator  
eguzkiarena lez  
izar urreago.*

*Ontasuna da nausi  
Kristoren irudia  
bildots zurietan;  
millinoi artizarrak  
dizdizean dabiltsa  
Jaingo eztaietan.*

*Izartik izarrera  
urrea da nagusi  
zoriontasunez;  
nekearen samiñak  
zerua urretzen dau  
gotzon maitasunez.*

*Ona maite izan zendun  
Jaingoak gizona lez  
kurutza gaiñean;  
odolezko arantzak  
zorion biur jatzuz  
Aitarene aurrean.*

*Erria maite zendun  
ta dana emon zeuntzan  
Euskalerrinari;  
danez goitik kristaua  
etsaiei parkatuaz  
Kristoren iduri*

*Zure lore ederrenak  
siñismen ta maitasuna  
kurutzaz mindurik;  
dana da, gaur, zuretsat  
Aitagaz alkarturik  
zoria bizirik.*

*Paulin.*

## EGUN ZORAGARRIA

Benetan olakoxea izan zan atzoko eguna. Geure olerkari bikaiñenatarikoa, LAUAXETA zanaren izena gogoratu ta goralduteko eguna zan-eta.

\* \* \*

### ABERTZALE TA FEDEDUN

Era batera gauza bi izan genduzan egun orretan; lenengo izkillotu ebenetik 50 urte, EUZKOTAR zintzo ta benetako ABERTZALEA zala aitatzea ta ondoren, edo batera, bere nortasuna alde guztietatik ikusita, au da: izlari, idazlari, olerkari, abertzale ta gizontasuna erakusten ebana ta, batez be, gauza guzti orrexen ganetik bere JAINKO-ZALETASUNA bere biotzean eroiala.

Neuk, zirkiñik egin barik, esango neuke azkenean aiatatu dodan bereiztasuna garrantzienekoa zala geure LAUAXETA'rentzat, bear eban indarra emoten eutsekako, berak bete ebazan gauza guztiak ondo bete ebazan erara betetzeko.

\* \* \*

### ITZALDIAK

Mungia'ko Jakituri edo Kultur-Etxean izan ziran izlariak gauza guzti oneixek azaldu ebezan eta guztiz ondo azaldu be, bakoitzak denpora gitxi euki arren.

Orrelan, bakoitzak bere aldetik ikusita emon euskun azalpena, LAUAXETA'ren argazki bat ba'zan lez izan zan eta olan, danon artean, alderdi askotatik erakutsitako argazkiakaz, gizon ospetsu orren nortasuna erakutsi euskuen eta geuk askoz obeto ulertu zelakoa zan gizon jakintsu, beargin eta apal ori.

Izlarien aurretik neskatotxu lirain eta alai dan Keltze ELORRIETA'K, abots zoliaz, argi ta garbi LAUAXETA'ren olerki berezi bat irakurri eban eta polito irakurri be. Ez dot ezagutzen neskatotxu ori, baña bide ortatik jarraitu dagiela diñotsot, bide zuzena ta egokia dalako.

\* \* \*

### ELEIZAN

Jakintza edo Kultur-Etxera joan baño lenago MEZA DEUNA izan genduan eta au be Meza ederra benetan. Amabi abade Altare Deunaren inguruan, ez dakit ziur LAUAXETA'ren alde otoi egiteko izan zan, ala berari,

geure bitarteko bat lez, egiten geuntson eskaria, Jainkoari berak eskatu dagion bear doguzan indarrak bialdu daiskuzala, beralakoak, edo antzekoak beñi-pein izan gaitzezan eta olan bakoitzak geure lana ondo bete dagigun. Ba'leiteke gauza bi orreik era batera egin genduezela, zeruko gorengo malla baten egongo dalakoan ziur gagoz eta.

\* \* \*

### BIZKAIKO EUSKERA

Latiegi Abade Jauna Meza emoillea izan genduan eta ezin dogu aitzu LAUAXETA'ri begira esan euskuna, batez ere onexek ainbeste maite eban bizkai-euskalkia geuk be zaindu ta aberaztu dagigun, orrelan eutsi ezkerro geure euskera gaixoa sendotu ta aberaztuko dogulako. Auxe ez da aiztuteko, gipuzkoar batek ori esan dauskuenean zeozegaitik izango dalako, batez ere geure bizkai-euskalkian jakingarrikoko gauzak ikusi dauzela izango dala uste dogu ta. Beraz, ez dagigun aitzu Jaun orrek emon dauskun ikaskizun eder ori.

\* \* \*

### LAGUNGARRIAK

Meza Deun ori, poztasunezko Meza izan arren ezin itxi aiatatu barik Mungia'ko Abezbatzak abeztu ebazan abesti eder, egoki ta guztiz alaiak.

Txistulariak be euren lana ondo bete eben, bai eleizan, gero Kultur-Etxearen sarreran eta azkenez bazkal ostean be bai.



Senideak arrebea, Felisa, koñatua.



# LAUAXETA

Milla esker eta ZORIONAK talde bi orrexei, zuen lana guztiz ondo bete zenduelako.

Bestaldetik, poztasunez agurtu nebazan LAUAXETA'ren anai-arrebak, batez ere ikusi nebanean neugaz be gogoratzen zirala, batez ere Felisa, aldi baten bere gurasoen jan-tokian bein baño geiagotan bazkaltzen emoten eustan eta gañera beste edozein etxeko bat ba'nintzan lez artzen ninduelako.

\* \* \*

## ADISKIDEAK ETA BAZKARIA

Azkenez, neure ume denporako beste adizkide batzuk be agurtu nebazan, neu be erdi Mungiarra nazelako, geure ume ta gazte denporako urte batzuk Mungia'n emon nebazan eta.

Amaituteko, zelan aitatu barik itxi euki genduan alkar-kidetako bazkaria. Benetan ederra, ez janariagaitik bakarrik, naiz eta guztiz ona izan, antxe izan genduan alkar-kidetasunagaitik baño, alkartzen gaitun indarra andia dala ikusten zalako.



*Jakintza-Ekinaldia: aita Lino, lau izlariak, olerkaria, neskatxu irakurlea (keltze) eratzaillea*

## BAZKAL-OSTEAN PAULIN OLERKARI

Amaituteko egon naz, baño ezin egin ori geure Paulin Abade agurgarriari eskerrik beroenak agertu barik bere "ALDATZ MALKARRETAN" bezuza lez maikide guztiai eskeiñi euskulako. Iru-lau gauza baño ez dodaz irakurri oindiño, baño guztiz mamintsu ta atse-gingarrik idaztia dala igertzen da. Milla esker, zure lan eder orregaitik! Eta ganera bazkari amaieran bere bertso batzuk be abestu ziran; guztiz ederrak eta ego-kiak, egun orretarako gertauta antza.

## LAUAXETA'REN IDAZKIAK ZABALDU

Orain, LAUAXETA'ren aldeko lana atzokoagaz ez dedilla amaitu, berak egindako olerki guztiak zabaldu bear gendukez al dogun toki guztietatik. Auxe izan bear litzake artu bear geunduken lana, euskotar bat be ez daiten geratu Gizon ospetsu onek egindako lan ederrari buruz jakitun imiñi arte.

Nire lantxo oneri amaiera emoteko asi dodanetik amaitu bear dot, au da esaten, Bagillaren 27'garrenean Mungia'n izan genduan eguna, BENETAN ZORAGARRIA izan zala.

EGILEOR'tar JON

## MEZAKO BERBALDIA (MUNGIAN 1987-6-27)

“Geratu zaitetz gugaz”, izan zan bi ikasle aien otoi-tza Emaus’ko illunabar artan. “Neurekin gel zaitte” izan zan berriz Lauaxeta’re eskaria, eriotzara galdurik Gazteitz’ko espetxean eriotzaren itzala atarian ikusten zuan gau illun artan:

“Neure egun-argia berantz azkar doa,  
itzalak jotzen daust atari-ondoa;  
Neurekin gel zaitte.  
Josu maite,  
gel zaitte!”

Ta, Gazteitz’en gelditu zan Josu, Lauaxeta’rekin gau artan, bi milla urte lenago beste gau artan bi ikasle aiekin Emaus’en gelditu zan bezala:

“Josu maite,  
gel zaitte!  
O Bidazti Deuna, sar zaitetz neurera,  
bertan dozu bada maitasun-arrera  
Bekidat bizitza zeure Itza.  
Sar zaitetz Jauna etxe-barnera,  
poza dator ba zugaz batera  
Bel zure mintzoa  
gozoa!”

Bi ikasleen adimena goi argiz bete zuan Josu’k Emaus’en Guretzako Eriotz Donea ulertzeko gai izan zitezen. Ala argitu zuan Lauaxeta’ren gogoia ere, gau aren egun-sentian jasan bear zuan eriotzaren misterioa kristauki aditu aal zezan. Eta Josu’ren Itzak goi-argiturik, martiri kristauen oiua jaurtiko digu Lauaxeta’k urbiltzen zitzaion eriotz ari begira:

“Josu maite  
gel zaitte!  
Dana yat atsegin  
Zeurekin.”

Getsemani’ko baratzen ez zan atsegiña izan Josu’rentzat eriotzaren ikuspegia. Ezta Gazteitz’en bere eriotzarena Lauaxeta’rentzat ere:

“Gaztea nozu bizitz onetan  
ta ez yatan falta gauzarik.  
Jauna, gogorra aldi onetan  
iges eitea lurretik”

Badu ordea Josu’ren itzak illunberik beltzena argi biurtzeko almen neurri-gabea. Ala biurtu zion argi gure olerkariari bere azken arrats illuna:

Eder yatazan eusko bazterrak  
eder itxaso zabala.  
Baiñan oraintxe ederrago yat  
eriotz onen itzala”

Yurre’tar Yulen

MAO TSE-TUNG

1936’tik 1954’ra

kondaira

I

*Yurre’tar Yulen adiskideak Liburu irakurgarri bi argitaratu dauz MAO-TSE-TUNG’eri buruz. Lurralde areitan berak misiolari egindako urteen ondorena dira. Lenengo aleari Gaztañaga’tar Jesus’ek eginten dautso sarrerea eta Mao’ren irakatsiak indartsu irauten dabela diño, baita aren liburuak gure artean be zabaldu dirala.*

Ez zuan Lauaxeta’k azken-une artan Euzkadi’rik aztu, eta sinispen sendoko kristaua zalarik, erri onen sinispenean ipiñi zuan bere eriotza alperrikakoa izango ez zalaren itxaropena:

“Josu’ren fedea besterik eztaukot.  
Erri zintzo onenak, zaindu dagiala  
il gintzanen atsa, il gintzanen ala”

Lauaxeta’ren atsa, izpiritua, Euzkadi izan zan, eta Euzkadi’ri eman zion bere azkeneko arnasa. Aren ala berriz, aren biotzeko miñ-oiñaze gutzia euskerari opaldu zion bere bizitza narro laburraren luzaro guzian.

Euskerak izan duan idazlerik onenetakoa izan zitzaigun, eta olerkari bezala, Orixe ta Lizardi’rekin batera, Euskal-Olerkaririk onena! Idazle eta olerkari BIZKAITARRA! Bizkaitarra zalako bizkaieraz idatzi ta abestu bait zuan, beste bi aiek, giputzak izanik, gipuzkeraz egin zuten bezala.

## LAUAXETA

Bizkaiera, Gipuzkera, Laburdiera, Zubero'ko izkera..., lau euskalki nagusietan euskera bat bakarra, baiña laukoitza, lau eratakoa, Grezi'ko izkuntzaren antzera, ez latiña edo gaztelera bezala, era bat beti berdiñeko arritzar gogorra.

Orregaitik, orain erdi illik daukagun gure izkuntza gaixo oni indarrez sartu nai dioten "batua" ori ez da Euskera, ez da euskalduna, ez da euskotarra. Gaztelera-ri dagokion batasuna da; "castellanoa" da, "español"!, ez, euskotarra. Ez da Euskerari dagokion batasuna. Euskeraren batasuna eskaldun bakoitzak bere euskalkia ondo ezagutzean dago. Eta batasun ori geixago landu nai ba'du, aski du beste euskalkien aditz jokua ikastea, ikastoletan gure gazteek illabeteen errez egin dezaketen lana!

Zuen euskera, bizkaitarrok, bizkaiera da. Euskera bikaiña, oparoa, aberatsa, ederra, bizkaitarrak ez geran euskaldunontzat arras atsegiña, zearo maitagarria. Bizkaitarrak ez ezazute Lauaxeta'ren euskerarik iltzen utzi. Landu bizkaiera; itzegin bizkaieraz; erakutsi zuen umeei bizkaiera.

Euskalerriaren sinispenean, "erri zintzo onen fedean" ipiñi zuan Lauaxeta'k bere itxaropen osoa. Badirudi Profeta, igarle, izan zala bere azken-arrats artan, fedea beste gauzarik ez bait zaigu gelditzen betiko euskera maite dugunoi, euskera orren alde lanean jarraitzeko. Esan ere esan daiteke ba mundu guztia gure euskera orren aurka jaiki zaigula gaur eguneko Euskalerrri doakabe ontan. Baiñan naikoa dugu guk fedea. Kristauak geralako, fedea beartzen gaitu lanera. "Zuzentasunaren eskari dala", diosku Elizaren Dotriñak "Pacem in Terris" entziklikan, "erri bateko izkuntza salbatzeko al daiteken guztia egiten saiatzea", eta "zuzenetasuna", iustitzia, era astunean, "graviter", urratzen duala erri bateko izkuntzaren aurka egiten dan guztiak, edo, aren alde egin ber gendukeana, axolagabekeriz egiteke uzten dugun guziak.

Erri onen euskera ordea, Bizkai'n, bizkaiera duzute bizkaitarrok. Emen, Bizkaiera da aurrena; gero, Euskera orokorra. Zuek ez zerate bizkaitar euskaldunak zeratelako, alderantziz, zuek, bizkaitarrak zeratelako zerate euskaldunak.

Yurre'tar Yulen

MAO TSE-TONG

1936'etik 1954' ra

kronika

II

*Aita Yulen Igorre'ko semea da, baiña Zeanuri'n eukan Jose bere anaia eta ortik sortu zan gure adiskidetasuna: Anaiari egiten eutsozan ikus-taldietan alkar izketa luze ta zabalak izan genduzan. Zorionak, Yulen eta eskerrik asko!*

Bizkaitarrak, salba ezazute Lauaxeta'ren euskera. Kristauak zeratelako, kristau dotriñak berak eskatzen dizute bizkaieraren berbizkundera. Bizkaitarrak: ez bedi alpe-rrik ixuria gelditu Lauaxeta'ren odola.

Elizaren dotriñak eskatzen digun ori egiteko gai izan gaitezen,

Josu maite

Gurekin gel zaite.





## LAUAXETA, GUDARIA TA ATXILLOTUA OMENALDIKO ITZALDIA (27-6-87)

### BAKE-ZALEA

Lauaxetaz gogoratzean, jazoera asko eldu oi yakuz adimenera eta guztiak geure olerkari bikaiña genduanaren kistartasuna, abertzaletasuna ta gizatasun aundia goirengo maillan jartzen dabenak.

Olerkariak bake-zaleak izan oi dira geienak, baiña ez gero, biotz-urri, bildurti edo geldoak. Lauaxeta be bake-zalea genduan, baiña ez koldarra bildur-ikaraz ebillan abertzalea, zintzoa ta biotz aundikoa baiño.

Bake-zalea genduanarren, lenengorik jarri izan zan Euskalerrria birmenperatzen eldu izan ekiguzan indar arrotzen aurka eta guda negargarri atara sartu bearra izan eban, orduko beste gazteak lez, bere buru-bide edo idealai jarraituz.

Gastea zan, eta bake-zalea zanarren, aberriaren guda-ri egin izan zan, ba, ain gogoko eban bere *izkillua*, idazkortza, atsedentzen itxita, askatasunaren alde guda-ko arazoetan edo egin-bearretan ekiteko.

### GUDARIEN IKERTZAILLEA

Benetako gudaria genduan, ba, Lauaxeta, baiña ez puzillaz lubana-zuloan arerioen-zain edo guda-zelaietan izkulluaz burruka ebillenetakoa. (Biarrizanean aurkitu izan ba'litz atan bere jokatu ebana, zigur nago). Beste eginbear batzuetan ekin bearra izan eban gure olerkariak, askotariko eginbearrak izaten dira gudaldietan-eta: Guda-ordezkarria genduan eta gudariak gudoñetan zela-ko egoeretan egozan ikusten eta abar arduratzen zan.

### EGI-ZALEA

Gizon bena genduan eta ukakorra etzanarren etzan aiko-maikoetan ibiltzen gudarieri itz egikeran. Gudara urteteko lagundia atontzen Bilbo'ko Eskolapio'en etxean gengoza, gu baiño aurreratxago mendira urteteko zirean gudarieri argi ta garbi adirazo eutsen gudearen gogortasuna ta abar, bildurtuko ebazan kezka bagarik esan eutsen: "bertan jausiko zarie, batzuk; guztiok etzarie biurtuko..." ba-ekian, ba, orduko gazteak gogailari edo *idealista* zintzoak gintzazana eta egia esatea oba zan, guzurrezko itzaldiz guzurtau baiño.

### GERNIKA'N

Gernika ondaturik urrengo egun baten, Bordele'ko *Le Petit Gironde* izparringikoak bialduta, Jorge Bernard izparkaria eldu izan zan Bilbo'ra, Gernika kixkalduan argazki batzuk egiteko asmuaz. Lauaxeta'ri esan eutsan

Axuriagerra'k ari laguntzeko eta belbil baten eldu izan zirean Gernika'ra.

Erri zuzitua ikusten ebizala ez eben aurkitu izan ezetariko eragozpenik, lelengoan, eta Batzar-èttxera be eldu izan zirean, antza, zeozer gordeteko asmuaz-edo. Eta, ondamenten artean-zear yoiatzala arerioen guga-mutillen taldeaz bat-egin eben ta biak atxillotu ebazan, zoritxarrez.

### ESPEXERA

Parantzetar izparkaria, Gernika bertokoak "gorriak" erre ebela ta abar, guzurrezko agiria izenpetu-eragin eta aske itxi eben. Baiña, Lauaxeta, Gazteiz'era eroan eben Karmeldar prailleen etxean euken espexera. Eta, Queipo de Llano espaiñar gudalburuak Sevilla'ko irratitik: "Izparkari bat atrapau dogu, ta beragaz batera "separatista" bat. Arrapakin polita!"

An egoan, ba, gure olerkari bikaiña, ziega illunean, bere etxekoeri ez iñori jakin-azoteko aukera bagarik...

Lauaxeta dala-ta ni neu geien arritzen nauana, erio-petuta eukela, laster ilteko eukela, arek aukar gogo-osotasuna da. Arrigarria da idazteko arek izan eban kemena eriotzearen aurrean. Biotz-eragingarriak dira, ba, azken-egun eta orduetan ak idatzi izan ebazan idazki, olerki ta azken-naia edo ilburukoa.

### ERIoTZA

Eta 1937'garren urteko Bagilla'ren 25'garren egunean, Doniane biamonean, goizeko bost eta erdietan, berak maite eban Izadia orrillo betean egoala, ebagi eutsan bizia etsaiaren amurruzko sastakaiaren sorbatz zorrotzak.

Bizkai'ko mendietako dunbotsen oiartzuna entzuten zan Araba'ko zabal dietan eta Urkiaga eta Basarantz'tar Estepan, Lauaxeta, gure olerkari bikaiñaren arimeak zeruetara igon eban, bere olermenaren lurrin gozatsuz batera, aren gazte-odol gardenak Euzko lurra ezozten abala.

### DANA ASKATASUNARI

"Dana emon bear yako mate dan azkatasunari" abestu eban *Mendigoizalearena* deritxon bere olerki ederrean eta, dana, guztia emon bere egin eutsan, gure olerkaririk gorenengoak, aberriari, askatasunari, Jainkoa ta Lagizarra'ren ikurpean.

AURRE-APRAIZ'tar BALENDIN

## NIRE GOGOETAK OMENALDIKO ITZALDIA (27-6-87)

“Erri zintzo onenak, zaindu dagiala  
il gintzanen atsa, il gintzanan ala!”

### OMENALDIA

“Lauaxeta”ren eriotz aurreko poesi bateko azken arrena, azken eskaria da. Olerkia bera “Azken oyua” deitzen da. Eriotzaren ziurtada eukala asmatu eta idatzia.

Euskerazaintza’k, Lauaxeta’ren eskola abegi onez ikusten dauan Erri-Akademiak, azken erregu ori barruan daroa. Origaitik gaurko omenaldi apal, baiña biozkor au.

### EZAGUTU NEBAN

“Lauaxeta” ezagutu neban: “Lauaxeta”k bere adis-kidetasuna emon eustan. Bere laguntza eskiñi. Nik esan-go neuke “Lauaxeta”ren arnasa artu nebala nire euskal asieretan.

Eatepan ni baiño bederatzirte urte zarrago zan. Gaur 81 urte eukiko zitun. 23 urtegi asi zan “Euskadi” egunkarian idazten. Ni bost urte geroago, bai eta gazteago be. Baiña ara zela-ala biok aolkari bat euki.

“Lauaxeta” eta beragaz batean jesulagun ikasten ibili ziranen bizitzan irakurten da, Aita Estefania izan zala, jesulagun gai edo ikasle zirala, gero euskal idazle jator izango ziran “Orixe”, “Lauaxeta”, Zaitegi eta abarren euskal arnas, euskal aolkari.

### BULTZAGILLE BAT

Ni be Gogo jardunak Loiola’n egiten ari nitzan baten, ain zuzen be Aita Estefania orregaz gertatu nitzan. Bera zan zuzendari. Eta beragaz eukitako bakar-jardunetan, berak nire goga aztertu eta euskeraz idazten astea ondo etorriko jatala esan eustan. Eta asmo ori artzeko eskatu. Alaxe asi nitzan idazten. Lenengo nire euskal arduretako illabete batzuk Zornotza’n egin ba nitun be, Arzubiaga (Zirilo) eta Gabirel Manterola abade euskaltzalien itzalpean, laster asi nitzan “Euskadi” egunkarian idazten eta “Lauaxeta” berbera izan zan nire iru antzerki egunkari aretako euskal orrian argitaratu zituana. Ala “Aberrijagaz bixi” umeentzako antzerki laburra lenengo, eta geroago “Illobearen indarra” eta “Itxas lapurrak”. Azken bi oneik ebegi eta gorde al izateko eran argitaratuaz.

Eta agindu be egin eustan “Euskadi” egunkarian bertako langille lez tokia egiten aleginduko zala. Baiña gure guda sortu zan ta ametsak, uste baten, porrot. Alaz eta gerra berbertan euki neban “Lauaxeta”ren aitatasunaren agerpen jator bat.

### GUDARI-ARAZOAK

1936 urtean, Iraillean, Ondarrutik itxaso urten, egun batzuk Donibane Loitzun’en egin eta andik Bilbo’ra biurtu nitzanean, nik ez nekian nora jo eta lenengo eginbearra beteten alegindu nitzan: gudari lez nire izena emotera joan, Carlthon era. Gazte bat etorri zan lenengo. Nik ez nekian Lauaxeta an ebillanik. Nire kartilla artu ta barrura joan zanean, bereala etorri zan Lauaxeta besarkada bero bat emoten. Eta bere ardura-pean geratu bear nitzala esaten.

Itxi, laga daiguzan oroitzak.

### LAUAXETA IZLARIA

“Lauaxeta” izlari eta idazle. Ori da izentatu dausten gaia. Ortara lotu nadin. Izlari lez nik ez neukio ezer kenduko, baiña aldaretan ipini be ez. Bakoitza bere tokian.

Nik esango neuke, erderara joten ebanean, berez urtetan eutsala barruan erabillan alako filosofi erako sakontasun batek. Ez zan dotorea, sakona bai. Ez zan itz-jario andi eta luzekoa. Etendura laburreko izlari zan. Zeatza.

Euki eban denporaldi bat, erriarengana urreratzean edo urreratzearen, dotriña erakusten lez jardun nai izaten ebana. Bear ba da orren premiña ikusiko eban erriagan. Alkar izketan lez, dialogo antzera jarduten ekian. Eta nik esan be egin neutsan berari, entzuleak alako etsipena lakoa artzen ebela orrela ekitean.

Bear ba da gu orduan abertzale gartsu giñan. Txingarra biztutea nai gendunak. Giro bero baten bizi giñan. Eta errietara tartean eskatzen genduzan izlari-entzatzat, beste gertakizun bat eroaten gendun. Beste gogo bat. Ez, esateko, katekesi antzeko jardunerako. Ori bertan egiten gendun oituraz bestelako denporetan.

Lauaxeta, beste aldetik, polemikari lez be ezagutu zan. Euki zitun Eusko Ikasliekaz eztabaida gogorrak, argiak eta setatsuak. Errepublikan denporan nun-nai sortzen ziran Unibersidadetan (orduan ez egoan euskal Unibersidadetik) ikasleen alkartasunak. “Lauaxeta”k argi-

tasun geiago nai eban euren jokabidean. Abertzale lotuera geiago. Eusko Ikasle Batzakuak azkatasunez jokatu nai eban. Errekaizetan ibili nai, ipar baltzetarako gertu barik. Erria, aberria, erdika autortzen eban. Gero, andik illetara, laster ikusi zan Ikasle orreitako batzuen jokera: eguzkia nora, zapiak ara.

## Lauaxeta idazlea

Ona eta zorrotza. Argia eta txukuna. Garbia eta errikoia. Beste gauza bat da olerki sakonetan, aditza biurtuta erabili bear danetan; itzak josten eta lotzen teknika bereziz jokatu bear danetan; izkuntzari berea, bere ezitia eta gozotasuna, bere doñua eta orrua atara bear jakonetan; izkuntzagaz maite minduak lez irri ta zirri, laztan eta musu, apar eta bitsetan, gozo ta laban jardun bear danetan. Ori ez dabe danak jakiten. Ori banaken gauza da. Irristagarria dalako. Maite-mindurik zintzoenak be ez al dira iñoiz txirrist egin eta zabartzen?

Itz lauz, prosan, "Lauaxeta" errikoia da. Nik esango neuke izparkari teknikaz idazten alegindu zala. Labur, zur, zeatz, piper eta gatz. Euskal idazleak sekula ez gara ugari izan. Bera, maixu lez laster agertu zan. Orretarako, egunkari baten, bera lez, euskal atalaren buru eta arduradun egoteak, idazleekaz alkar-izketarako aukera emoten eutsan. Aukera ori, bere onerako erabilten eban, euskeraren batasun baten bidean, bai eta idazleei bere arnasa eta laguntza eskiñiaz, itxaropen aizeak sortu eragin edo ta idazten jarraitzera adoretzeko.

## IDAZLEEN ADORE-EMOILLE

Adierazgarri, proba bat.

Ementxe, Mungia'n, kale erdiko aldatz gora orren buruan, errepeidearen egalean, Bermeo'rako bidea artu baiño lentxuago, denda bat egoan, ferreteri edo naste-koa. Eta bertan polito eta txukun idazten ekian emakume bat. "Euskal Esnalea" aldizkarian idazten eban 1929/1931 bitartean. "Lauaxeta" k zirikatu eta adoretu eban "Euzkadi" egunkarian idaztera, eta nik be "Lauaxeta" ren bitartez artu neban beraganako ezaupide eta adiskidetasuna: Jule Gabilondo, "Maite" deituraz idazten ebana. Nik esango neuke "Lauaxeta" ren miñez edo naigabez mututu zala. Beintzat guk euki dogun

berrogetak urtetako garizuma luzean, idazle lez baraua egin ebala esango neuke. Agertu ez beintzat.

Gerratean Lazkao aldera iges egin ebala emendik, jakin neban. Gero Donostian bizi zala uste dot.

## EUSKEREAREN ZALDUNA

"Lauaxeta", gain gaiñetik, euskal idazle izan zan. Olerkari eta itz lauz, euskeraren kontzientzia aldian erabillalako.

Nik esango neuke beste era baten, euskeraren zalduna izan zala be.

Gure erri au erri berezia da. Uri eta baserri. Uriak berea lez euki nai izan dabe alako jaun-nortasuna, andikitasuna. Erriak be urietakoei eta batez be uriburukoei (kapitalekoei) alako ezaupide berezi bat emoten geuntsan. Zorionez ori aldatu da, baserritarrak be uritarren duintasuna artu dabelako, era guztietan, asmuz eta jakitez.

Ain zuzen be Mungia onetan euki zenduen kasu berezi bat. Erri lez Mungia bikotxa. Udaletxe bigaz: Mungia uriarena, villarena, eta Mungia Eleiz-ate, antei-glesiarena. 1900 urtean bat egiñarte, alaxe bizi ziñen.

## KAPELADUNA

Baiña gure denporetan, erri txikietako euskaldunak, arrotu egiten giñan, edo ta alako nortasun ezaupidea lez artzen gendun, urietako "gizon andiak" euskeraz berbetan urreratzen ziranetan. Eta txapel ordez, kapela (sonbreroagaz) etorten ziranetan. Ori gertaten zan Ebaristo Bustintza "Kirikiño" gaz; ori Tomas Agirre "Barren-soro" gaz; ori Aingeru Irigarai naparragaz. Ori bardin Estepan Urkiaga, "Lauaxeta" gaz. Orreik, ziur dakit, kapelea erabilten eban, ba ekielako euskaldun askoren artean arrada berezia sortuten ebala kapeladunak be euskeraz ekiela eta euskera maite ebela ikusteak.

Orra "Lauaxeta" ri buruz, nire ikuspegi batzuk.

Asieran lez, bere olerki baten zatia gogoratu nai dautsuet, neurera biurtuta:

"Erri zintzo onenak, zaindu dagiala  
il ziranen atsa, il ziranen ala.

Eta batez be

erail zituenen gogua, erail zituenen espiritua.

A. ZUBIKARAI

## GIZATASUNA

Zer esan negike Lauaxetari buruz? Gauza berezi, urtenik ez. Gizatasun aundiko gizona zala. Gizon txeratsu, argi ta, langillea. Olerkidetasunez ganera, niretzat adizkide ta lagun, aita bat lez izan zan. Nire lenengo olerkari ametsak, lenengo oñotsak erabidetu eta indartzen, oñarritzen alegindu zana beren aolku ta gogai, beren noizbeinkako gorralpen ta aipamenakaz, asi barri nintzan egun urdurietan. Pilipinastik etorri barri nintzala ezagutu al izan neban an, bere zeregin, lanbidea zan Euzkadi egunerokoaren landola, idazgelan. Euskal atalaren artezkaritzan. A, bere Bilbon ta, ni neure Arteagan gurasoakaz, baserrian. Ori zala-ta gitxitan ikusten ta alkartzen giñan. Noizikbein.

\* \* \*

Esteban Urkaiaga Basaras, izenordez Lauaxeta, Bizkaiko Laukiz errian jaioa zan, 1905 gko Dagonillaren 3'an. Ikasketak jesuitekaz egin ebazan, lenengo Durangon ta, gero, Loiolan. Baiña, ikastaldi orren barri emoten ez naiz luzatuko. Aren bizitza ta martiri eriotzari buruzko, aren olerkigintzari dagozkion iritzi-miritziak ta, osterantzeko ustekizun ta azalpenak azken bolada ontan irarri ta argiratuak izan diran bi liburu aintzagarri ta marduletan daurkikez irakurleak.

Bata, Lauaxeta Olerkiak Jon Kortazar ta Miren Billa-labeitiak antolatua ta, bestea "Urkiaga-tar Estepan, "Lauaxeta", Olerki Guztiak" izenburuz Aita Onaindiak zeatzasun aundiz eratu. Argazkidun liburu apain ta mardula. Liburu eder bijok dira akats-makats, eredukor ta txalogarri.

Bijok eskuragarri, Lauaxetaren bizi-zeatzasunak ta, aren olerkiguntzaren neurgai ta sorbideak, nundiknorkoa aztertzen, aren olerki lanaren argibideak ta, baliotasuna, egokiro ta, zuzen emoten alegindu izan diralako. Orrez ganera ba-dira beste jaun jakintsu batzuk be, sakonkiro aztertu ta arakatu dabenak Lauaxetaren olerkera mamintsu eta argidoia.

\* \* \*

Arostegi dogu bat, Luis Arostegi, "Lauaxetaren Olerkien Gizatasuna" deritxon azter-lan ederragaitik. ZER aldizkariaren 104 zenbakian datorrena lenengo orrialde-tik azkenengorañoko osotasunean.

Akesolo jaun argiak beste ainbeste KARMEL aldizkarian 1986 gko 176 zenbakian, Lauaxetaren gaurkotasuna ta, olerkari-sena goraiatu ta munduko literatura aundiaren artean jartzen dau aintziñakoen ta oraingoen artean, Grezia, Erroma eta Europakoen ezagutzaille ona genduela eta literatura bakotxari bere guna aurkitzen ekienetakoa gaiñera.

\* \* \*

Nik ezagutu izan neban Lauaxeta abertzalea zan.


Abertzale euzkaltzalea ta orren inguru-minguru igitzen ta eiotzen zan aren pentsakizun dana.

Euzkerea auleriak jota ikusiarren abertzaletasun orrek emoten eutson oztopoak gainditzeko adorea ta indarra ta, bere jakinduri ta zentzunez euskerea lau aizetara zabaltzen, edatzen ziardun kementsu, bide barri billa, bide batez edo eraberean euzkalgai zarrak be barrituz.

Lizardiren antzera, euzkerea goratu, goi-mallaratu nai izan eban; euskal literatura lotsarik barik eder ta burutsu munduratu.

Aren asmoa euzkerea geitzea, noranaitzea; bere sene-tik atara barik euzkereari bizia emotea; olerkerak edozein bazterretik jazoarren, edozein gai ibilliarren euskal izakeraz mendu ta orraztutzea. Klasiko zalea izanarren ez eutson egungo elertiari muziñik egingo. Bat nator Akesolok autortutakoaz diñoskunean: "Orain badakigu zelango asmoak erabillezan berak literatura guztietako lora ta olerki tankerak gurearen baratzer aldatzeko. Lauasetaren galtzeaz etenda gelditu ziran asmo ta ames eder guztiak. Lauaxetaren galtzea ezin kaltagarriagoa gure literaturarentzat orain ulertzen dogu ondoen".

\* \* \*



### Mungia'ko Omenaldian

Berrogei ta amar urte igaro dira, doistar egazkiñak Gernika lerkaz erre, zanpatu ta ankazgoratu ebenetik, gure aurkako etsai askoren poz aundiz.

Berrogei ta amar urte baita, egun batzuk geroago, Lauaxeta Gernikan arrapatu ta Gazteiz'a eroan ta, "an, espetxe biurtutako karmeldar komentuan illabete bi atxillo egiñik, bagillaren 25'an, goizeko 5,30'erdietan, su-izkillotua izan zan Santa Isabel kanposantuko ormearen kontra". (A. Onaindiak, "Lauaxetaren Olerki Guztiak idaztian).

\* \* \*

Nik ezagutu izan neban Lauaxeta, gizon argi, jakintsu ta langillea zan.

Buru-belarri murgildua zebillen lanean gogor, danetara eldu eziñik, egunoroko zeregiñak bete ta bere asmoak aurrera eroateko. Berak esana da: "Ordu luzeak ez dodaz idazteko, astegunetan lan eta, jai-egunetan lan, aberriak beragan lotua narabil!".

Murgilduta zebillen euskal alorra zeatz atxurtu ta lur landu orretan munduko landara berezienak txertatu eta baratzeratuz.

\* \* \*

Klasikuak gogoko ebazan baiña, berak esaten eban lez, "ludiari arte edo irinarte batetik ez jako begiratu bear, tarte batetik beti moeta batekoa iduriko jatzulako.

Ateak zabaldu egizuz ludia ikusteko, izadiari agur egiteko ta begiak joko dabez amaikatxo moetatako lurra eta edertasunak".

Areago oraindik: "Klasikoen zaiña eta osasuna atsegingarri dala esango dot. Baiña baserriko emakume lodikotea, artoberoz azia, matrail gorria, atsegingarri jatan arren, txaide arteko emakume aratz eta lerdena atsegiñago jat. Usain ohea daukatsu txaideko emakume orrek. Biak atsegin".

\* \* \*

Lauaxeta gorenetak olerkari on bat dogu ta, benetan aintzagarri!

Urte aztun luzeetako illunpe baltzean aren izena bāztertua euki nai izan dabe, olerkari lez, garrantzi aundirik emon barik, Zergaitik ete? Abertzalea zalako? Martiri au intelektual aireko zenbaitek ezer gitxi balitz lez maltzurkeriz aren olerkera eta izate bera be, lorrindu ta estaldu, bertanberatu nai izan dabe.

Baiña urteak joan, urteak etorri, urak bere bidera datoz gardentasunezko ekarriz.

Beraz, oroitu ta aintzaldua izan bedi Laukizko seme gotor, olerkari ta idazle martiri agurgarri ori!

MINIATEGI'tar SABIN

**ZER**

**ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

## IÑOK EDESTUTEN EZ DAUANA (ONELAN ERAIL EBEN LAUAXETA)

Batzokiko diru-artzalleak "Lodia"-ren etxeko atea jo eban. Ordain-txartel asko eroiazan. "Lodia" aldi luzean kanpoan egona zan. "Asturietakoa" baño lenagotik. Artze-ko dirua andia zan. "Lodia" aberatsa eta alderdiarentzat emankorra zan, eta ordaindu bear ebazan billabe-teak asko ziran.

—Au ordaiduten dautsut, baña kendu nagizu izen-lerrotik. Ez zaitetz biurtu barrero ordain-txartelakaz.

—Aldatu egin dozu pentsakera?

—Ez. Baña alderdiak jarraituten dauan bideari ez derixat ona.

\* \* \*

Batzokian batzarra. Gudeak aste batzuk ditu. Euzko gudarostearen antolaketa atzeratuz doa. Sozialistak, Komunistak eta anarkistak, ba-ditue euren taldeak (naita bata-llioiak oraindiño izan ez) gudulerroan. Errian talde komu-nista bat dago. Alboko urian anarkisten, beste bat. Baiturak, "paseoak", lapurketak,...

—Azkarrago ibilli bear dogu. Ostantzean oneik ez dabe itziko iñor bizirik.

—Zer egingo dogu "Lodia"gaz.

—Saltzaille da.

—Ez da saltzaille, gure gogamenekoa baño. Aberatsa dalako oneik erailten ba'dabe, ori ez jaku izango gauza egokia.

—Ez jaku kostaten ezer beste aldean ipintea. An ez dautse oratuko oneik.

Gau berean, gudarien kapitan batek "milizianuen" gordelekuak alboan itxirik, aurkakoen lerroetara gidatu eban "Lodia".

\* \* \*

"Luzea" ez dago lasai. Alderdia Errepublikaren aurka jagiko zala uste eban. Orregaitik soldadutzea betetu-ten eban erregimientoa, opizialai machinadean lagun-duko eutsela agindua. Matxinadea etxean, baimenaz zanean jazo zan. Alderdikideak eskeiñi dautsoe gudari-erien kapitan izatea. Berak ezetz erantzun eutsen.

Bestealdera alderatuko litzake, baña bildur da bere sendiari egingo leuskioenaz.

\* \* \*

"Luzea"ren aita idaz-laguntzalle zan udaletxean. Erri-idazkari a "paseatu" ebenetik aren lana beteten dau. Gaugurtza iilleen eta damuzko anaidiaren burukidea da. Seme bi pralle ta alaba bat moja ditu.

Udaletxera anarkisten talde bat eldu da.

—"Salud camarada". Au ederto doa. Garbiketa oso-

osoan ari gara. Gaur abade bat eta abade baten "alaba" zala diñoen andrazko bat erail doguz. Ez dogu itxiko prallerik, abaderik ezta be pralle-mojaren seniderik be "Luzea"ren aita txito-bildurturik eldu zan etxera.

—Baña gureak, zer egiten dabe?

—Ezer ez, aita. Kexatu ta ixillik. Oraingo beintzat.

\* \* \*

Gabean be, sendi osoa igaroten da bestealdera. Erre-keteak diran lengusuak lagunduten dautsee.

—¡Alto! ¿quién vive?"

—"España".

¿Zuek España? Alkar ezagutzen dogu. Beste oneik bai.

"Luzea" ta anaiak Gazteiz'ko kartzelan sartu dabez. Erriko esamesak zio garrantzitsuena euki dabe: Batzo-kiko Bazkideak izan dirala.

\* \* \*

"Lodia", alferrez agiria lortu eta guda epai taldean sar-tu da. Alako baten deituten dautso Komandanteak.

—Zure aurka salaketa bat etorri jaku. "Separatista" zareala diño.

"Lodia" ikaratu egiten da, baña baretasuna ez dau galduten.

—"Ordago" urliak izenpetuten ete dau?

—Axe berak? Zure aurka zeozer ete dauko?

—Bai zera!. Ni legegizona naz eta bera ogibidebako alperra. Nire berebilla-mueta amerikatarrenetako one-na da; ta berak ez dauko berebillik. Ondo jan oi dot, bera gose izaten da. Berak ez daki guiski zer dan eta nik onetarikoa edaten dot. Erromerietan neskatzak kenduten dautsozaz...

\* \* \*

"Luzea" ta anaiak sei illabete luzeetan itxaron dau-tsoe epaiketari. Gasteiz'ko kartzelan Bitartean, idazge-lan "Luzea"-k lanpostu bat iritxi dau. "Luzea"-k eta "Lodia"-k sarri espetxean alkar-ikusten dabe. "Lodia"-k ez ezagutzea egiten dautso "Luzea"ri baña luzea ez dago ixillik:

—"Lodia", zu ta biok, eskola beretik gatoz.

—Atxillatu barri oien fitxak egizuz.

—Zein da zure izena?

—Felix Placer.

—Zu Araban aldungai izan zara, dirautso "Lodia" k idaz-makiña jotzen dauan artean.

—Eta zure, izena zein da?

—Urkiaga'tar Estepan.



—Lauaxeta!

—Ezagututen nau berorrek?

—Jakiña!. Baña ez egidazu esan “berori”. Amaika mitiñetan entzun dautsut. Baña txarto Salatu zaitue, mutil!

—Ikusten dozu. Obeto izango litzake tiro bi niri aurretik emotea. Emongo daustez gero be-ta.

—Orain zoaz gelara. Gero igoko naz zer bear dozun ikusteko ta ia zelan lagundu neizkizun.

\* \* \*

Kurebioa balitza lez, sartu zan miñutu batzuk geroago, idazgelan “Lodia”.

—Sartu al da Lauaxeta?

—Ez, edo nik ez dakit, beintzat itaunari iges egiten dautso “Luzea”-k.

—Fitxak emoidazuz ikusteko... Emen dagoz.

Zergaitik esan daustazu ez dala etorri Lauaxeta?.

—Emen Urkiaga’tar Estepan dago ipiñita. Zuk Lauaxetaren itauna egin daustazu.

—Lotsabako ori!. Ondo dakizu, neuk lez, Urkiaga’tar Estepan Lauaxeta dala.

—Bai. Pelotaleku zaarreko mitiñean, zeuk besarkatuten zenduana, axe bera...

—Zuk be!. Zeuk be “separatista” nazela diñozu?. Zuek guztiok “separatista” ez nazela ikusi dagizuen, Lauaxeta ilteko epaitu dagiela lortuko dot.

—Ori da marrua! Zeure burua zuritzeko, eriotzara eroango dozu errugabeko gizon bat?

\* \* \*

1937-eko, orrillaren amabostean, Deun Isidro Nekazariaren egunean. Egun berean eta epaimai beraren aurrean, “Luzea” ta anaiak zurituak izan ziran eta Lauaxeta ta Placer eriotzara epaituak. “Lodia”-k, agindurikoa bete izan eban. Epaietan argitzale bera izan zan.

Agur egitean “Lodia”ri esan eutson “Luzea”-k.

—Iñoiz ez neban uste orren zital izateraño elduko ziñanik.

—Ixillik zagoz. Ia barriro kartzelan sartzen zaitudan!

—Ederto! Gudatokira joan bearra kenduko daustazu... An bertan egon bear zenduan zuk... Dana dala, merezi dozuna emongo dautsu. Jaungoikoak eta zapatak oiñetan dozuzala ilgo zara.

Guda amaituta gero, “Lodia” (ondo jan, guiski ona ta abar) bat-batean il zan.

\* \* \*

Kartzel-gelan otoitz luzeak egiten ebazan Lauaxetak. Ama Eleizaren altzora bere gelakide bat erakarri eban.

\* \* \*

“Luzea”-ren anaiarik gazteenak, Franco beraren zaingudaria izatea jadtixi eban. Urte asko geroago, bere suin bat, jaurlaritza bitan kontseillari izan zan.

Ondiño bizi dira “Luzea” ta bere iru anaiak. Gas-tearen suiña politikan dabil. Gudariaren kapitana bizi da oraindino.

“Luzea”-k askotan edestu daust egiatzko kondaira au. Beti berba bardiñakaz. Orregaitik egi-egia dala siñisten dot.

“Lodiaren” illobak bizi dira, ta lagun andiak dodaz. Osabak egin ebanaren errurik ez dabe. Orregaitik ixilduten dodaz izenak.

ZORTZIGARRETZALE

## EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN BATZAR NAGUSIAN

ZER'en 111n.zenbaki au irarkolan dala barri garrantzitsu bat artu dogu albisteebide-tatik, naizta zor jakon besteko zabalkunderik izan ez barri orrek. Urrengo zenbakian arazoa obeto agertzeko asmoaz, oraingo onetan labir-labur azaldu besterik ez dogu egingo.

Donostian izan dan Euskeraren Batzar Nagusian agiri bat aurkeztu ei dau EUSKERAZAINTZA-EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA’k eta auxe ei diño: Euskera batua

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

**EUSKEREAREN BATZAR NAGUSIAN**

1.985 - 86 IKASURTEA  
AMAZORTZIGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUEGAN  
EDO ASTEARTE ETA EGURETAN

ORDUAK : GOIZ, ARRATSALEZ ETA GABETAN

ORDAÑA : 8.000 pesetas

IZENA EMOTEKO TOKIA : EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREA 14 - 3  
BILBO  
URAUTIKINA 423 92 31

18. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELAS Y CONVERSACION

DIAS : LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES  
O MARTES Y JUEVES

HORAS : MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO : 8.000 pesetas

INSCRIPCIONES : EUSKERAZALEAK  
COLON DE LARREA 14 - 3 BILBAO,  
TELÉFONO 423 92 31

**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO**  
**BILBO AURREZKI KUTXA**

sortu zanetik eta euskera ori irakaskintzan eta albiste-bideetan erabilten danetik, euskaldunen artean alkar ulertu eziñña sortu dala, batez be guraso ta seme-alaben artean; eta euskera ori sortzeko oiñarri lez euskalkirik zabalena artu-bearreen, oso euskaldun gitxik erabilten daben euskalkia artu dala.

Adoretua, egibidekoa ta txalagarria dala uste dogu EUSKERAZAINTZA'ren salakuntza ori, eta euskerea aztertze-ko gogoaz gure artera etorri diran euskerazaleentzat jakingarria. Urrengo zenbakian obeto argituko dogu arazoa.

IDAZKOLA-BATZORDEAK

## TXOMIN ITURRATE ZORIONTSUA

### SANTUAK EUSKALERRIAN

Ez ei dago santu asko Euskalerrian, diño, eta egia izan leiteke, baiña ez dakit ba, daukaguzan be ezagutzen doguzen. Datorren urterako egutegia gertatzen niarduala Euskalerriko eleizbarrutietan diran egutegiak azertu nebazan eta ainbat santu edo zoriondun aurkitu be bai, iparraldea ta egoaldea alkartuta, naizta Baiona'ko batzuk euskaldunak izan ez, eleizbarruti au osoan euskalerra ez dalako.

Baiña Bizkaia'n? Orain asi dira ugaritzen baiña orainsura arte santuak edo zoriondunak urri izan doguz. Balendin Zoriontsua bakarra.

### ASPALDIKO GIROA

Gure aldi onetan II Jon Paul Aita Santuak erreztasun berezi bat agertu dau Santuk eta Zoriondunak aintzat artzeko. Batzuk misiolari izandakoak eta fedearen alde odola emon dabena, beste batzuk eguneroko bizitza arrunta fedez eta maitasunez bizi izan dabena, batzuk lekaide lekaimeak, beste batzuk alargunak...

Giro onek bere ondorenak ekarri dauz gure Errira be. Balendin Zoriontsua datorren urtean ezarriko dau Aita Santuak Santuen zerrendan eta ainbat izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan Zoriondunen maillara eldu diranak eta laster santuen artean ikusiko doguzanak.

### TXOMIN (DOMEKA) ITURRATE

Oneitariko bat dogu gure dimostar ospetsua dan Txomin Iturrate, Sakramentu Guztiz Santuaren Txomin edo Domeka aita. Bizkaiko Dima'n jai zan 1901'eko orrillaren 11'n, 1925'eko dagonillaren 9'an egin zan abede Erroma'n eta Cuenca'ko Belmonte'n il 1927'ko jorriallaren 7'an. Ogei ta sei urte beteteko egoala joan jakun ba, santuen jarraibide argia guri itzita.

Ez dogu antziñako "taumaturgo" edo santu mirarigileen artekoa, eguneroko bizitza arrunta fedeagaz eta maitasun aundiagaz bizi izan dabenen artekoa baiño. Orretan Lisieux'ko Teresa'ren eta Gontzaga'ko Luis santuaren edo Josulagunen arteko dogun Berchmans'tar Juan'en antzekoa dogu. Ederto agertzen dau ori Salotti Kardenal eta Santu-agertzean trebea danak: "Nik irakurri dodaz Luis Gonzaga, Juan Berchmans eta ola-koen bizitzak eta auxe esan bearrean nago, pozez beterik: Aita Domingo ez dagoala santutasunean orreik baiño berago".

### LINO AKESOLO'REN ITZULPENA

Ba-daukagu euskeraz Aita Domingo'ren bizitza edesia be, Manuel Fuentes aitak idatzia eta Akesolo'tar Lino Idazle ospetsu dan karmeldar dimostarrak euskeratua. Auxe da liburutxu onen idazputua JAUNGOIKOAK BERETZAT GURA NAU. Domingo Iturrate Zorionduna, Irukoiztarra".



*Aita Txomin zorionduna gaisozain*

### LASTER SANTUA?

Gure Domingo Iturrate laster ikusiko dogula Santuen artean be, uste dogu. Eta gauza pozgarria izango da guztiontzat.

Bere berbak bir-idatziaz amaituko dogu idaz-lan apal au: AGUR, ONDO BIZI, SANTU EGIN ETA ASKO IKASI.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

## “DENBORA BERRIETAKO ELIZA” LIBURUAREN AURKEZPENA (DONOSTIA, 1987-4-24)

Andre-jaunok:

Liburu baten aurkezpena egiteko batu gara gaur emen: *Denbora Berrietako Eliza* (Argikuntza, *Jakintza Berriak*, *Iraultza* dau izen-burua idazti onek, bosteun eta berrogeita amabi orrialde aundi-beteak osatzen dabena.

EUSKERAZAINTZA-ren illeroko azken billeran aukeratu ninduen aurkezpen au zuei egiteko Bixente lez, neu be abadea apaiza naz eta idazlea.

\* \* \*

Liburu bat ez da zugazpean sortzen dan perretxikua. Perretxikoa ba'litz, kiloko ondio baltza eta mardula litzake. Ondioa berez sortzen da; liburu, ordea, beste baten eskuz eta adimenez.

Kilo bateko liburu mardul au ez da bakarra, sorta baten bigarrena, baiño. *San Inazioaren Denborako Eliza* dau izena lenengoak eta lareun eta ogeita amar orrialdek osotzen dabe. Urtebeteko epea bien artean eta egillea, berbera.

ELEIZ-EDESTI-SORTA saillekoak dozuz biak eta beste iru be laister agertuko jakuz egille berberaren eskutik, sail onetan.

EUSKERAZAINTZA'k argitaratu dauz biak eta badiu beste idatzi batzuek be argitara emonak. “Mirri”k, Euskadiko paillasoak, EUSKERAZAINTZA'ren bizkarretik txistea egin zigun Euskal-Telebistan, Martxoaren 25'eko domeka arratsaldean. Txiste-gai baiño geiagotarako be bagarala, uste dot.

*Nor da liburuaren egillea?*

Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa) diño idaztiaren azalak.

“Bixente” izen aukerakoa dozu. Irugarren gizaldia-zen azken-aldeko martiri euskaldunaren izena. Diokleziano'ren erasoan erail eben Zesar-Augusta'ko diakono zala. Bere gotzaila “ignarus linguae”, “mintzaira gabekoa”, zalako, diakono Bixente erabiltzen eban itzultzaile Jainkoaren itza erriari banatzeko. Euskalduna zan Bixente a, gurea lez. Gurea Latiegitarra dogu, Euskalerrian sustraitua. Errotik euskaldun. Ez edonun errotua, Gipuzkoan baiño; Tolosan baiño.

Amabost milla urtetik onako sustrai luzeak ditu euskaldunak European. Bere mintzairak be badiu millaka batzuk. Orduko Franko-Kantauri-Kultura begien aurrean ipiñi ezkeru, auxu ikusten dogu: Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa, Pirenee-mendiak eta Garona ibaitik gora, Dordoña'arteko tartean, eunka dagozala leizak gure arbasoen egoitza izanak. Orrean arteko askotan itzi dauskuez marrakzi margodunak eta xixilikatuak, geure aurrekoen kultura berezia osotzen

dabenak eta garai bateko Europa'ren sustraktum izana da kultura au.

Geure gaurko erri zaarra, kultura onen ardatzean dago, ertz zabalak galdu badiu be, Asturiastik Bizkaira eta Naparroatik Dordoña'ra bitarteko egalak dira galdu ditunak. Alan be, dirau oraindik erriak kultura zabal orren biotzean. Ez dau nortasunik galdu, mintzairari eskerrak.

Mintzairak, ordea, oraindik Erri zaar onetan dirau-nak, berak be egalak galdu dauz eta Erriaren biotzean kokatu da. Euskalerrria Franko-Kantauri-Kulturaren biotzean eta ardatzean ba'dago, Tolosa biotz orren biotzean eta ardatz orren ardatzean daukazue. Ez da bada arritzeko Tolosa-ingurukoa ba'da Euskerarik jatorrena.

Bizkaiak, Arabak, Naparroak, Lapurdik eta Zuberoak, bostak ditue euren egalak erderaren lurraldeekin bat eginda. Gipuzkoa, barriz, bosten erdian gelditu da gordeta mendeetan zear, guztien biotzaren antzeko. Baiña, guzti orrean ardatzik ardatzeena Tolosa ingurua da: Tolosa'tik Aralar aldera. Ez da kasualidade bat Orixe ingumari orreitan sortua izatea, Euskeraren gordelekurik ziurra eta garbiena toki ori izan da beti eta.

Ba-eben ba, arrazoirik Azkue eta bere Euskaltzaindiko lagunak Gipuzkoako euskera batasun-biderako aukeratu ebenean... Orain, barriz, ez dakit nungo aizeak emon-da, iturri garbienekoa eta jatorrena itzi eta egaleko euskera bat artu dabe euskera guztien batua egiteko...

\* \* \*

Esandako onek danak onetara datoz: Bixente euskaldunak, Latiegitarrak, Tolosa'ko semeak, iturburu garbienean edan dauela bere euskera.

Eta euskera ori amaren bularetik edoski ebalá. Gertakizun onek izugarritzko abantaila eta onura emoten dautso gizaki euskaldunari: buruko estrukturak eta moldeak euskaldunak izatea. Euskeraz pentsa eta euskeraz mintza. Ez dago bien bietartean aldaketarik: pentsamoldea euskalduna eta orreri dagokion mintzaira be bai. Eta ori, nekerik gabe lortua amaren magalean...

Bixente'ri ez jako ainbeste eta ainbeste euskaldun barriei gertatzen jakena gertatzen: erderaz pentsa, eta euskerazko itzez mintza. “Traduttore traditore” gertatzen jake euren barruan, euskerarik menperatzen ez dabelako. Bai, bai, kursillo pilloa dauka eginda; agiriak, barriz, kartera-bete; baiña, irakurri egizuz orrean idazlanak eta, begien aurrean erderazko idazkia ez ba dozu, lanak izango dozuz euskerazko itzulpenak ulertzen.

Gaurko egunez jende asko bizi da Euskeraren erra-petik. Iragarkiak lurralde osoa bete dabe bi izkuntzetan:

## ELEIZEA

erderaz eta euskeraz. Ez dau iñortxok euskerazkorik irakurriko eta, orregaitik-edo, iragarkia ipintzen dauanari bardin jako ulertu-erreza ala ulertu-gatxa izatea. "Legea betetzen da" euskeraz ipiñi ezker; ondo ala txarto, orrek ez dau nunbait orrelako garrantzirik, legea bete ezker. "Legea bete", ordea, euskaldunentzat auxe esan nai dau, legearen azala betetzea, mamirik beteten ez ba'da be.

Gure arteko gerratean nere amama eta bere lagun Gergori, biak oso gizenak, Lekeitio'ko ingumarietan egozan, mendi-bide batean, automobil baten barruan. Geruratatu jake milizano-taldetxo bat galdezka:

—¿Qué hacen ustedes aquí, señoras?

Gergori Amoroto'ko alaba euskalduna zan eta onelan diñotso nere amamari:

—Berba eixu, Pillipa... Eta, Pillipak barbarik be ez esaten eustan andik denboratxu batera.

Pillipak berba egiteko asmorik ez ebalu ikustean, bera asi zan:

—Este señora de hijo de auto; no poder ser andar. Miliziano aien algarak. —¿Qué dice señora?

—Fácil, fácil: este señora de, hijo de, auto...

—Areik mutil tontuak ziran, esaten eustan Gergorik. Ez eben ezer be ulertzen.

Berarentzat arazoa oso garbia zan: Andre onen (esta señora de) semearen (hijo de) automobilla (auto): esta señora de, hijo de, auto... Errezago esan ezin. Euskeraz pentsa eta euskeraz egin berba erdaldunekin; gaur eguneko zenbait itzultzaileek orixe egiten dabe, baiña alde-rantziz: erderaz pentsa eta erderaz itz egin, berba euskaldunekin...

Latiegi'ri ez jako orrelakorik gertatzen, naiz-eta dotoretasuna dauen apaiza izan, irakaskintzan beti ibilli euskeratik at eta izkuntza askoren jabe bere burua egin bere bizian. Oiek danak ez dautse euskerarik galduraz, azpiko oiñarriak eta beeko solairua euskera jatorrez egiña dauelako. Gaiñera Euskera zaindu dau, Euskerari ekin dautso eta Euskerazaintzaren sortzaille bat be bada. Liburugintzan lanean ikusten dogu eten barik eta bien bitartean or dabil su-ta-ke aldizkarietan lanean (ZER, KARMELETA eta SASKI-NASKI) eta izparringietan (Diario de Navarra) euskera-arloan...

Euskera, ordea, ez da izan bere ogi-bidea: euskarentzat bizi ba da be ez da euskeratik bizi. Gazteiz'ko Instituto Politécnico'ren zuzendari izan da urte luzeetan. Beraz, bere lana ez zan euskeraz idaztea, ez eta.

Elizaren Edestia egitea be. Beste lan askoren artean au be egin dau atsedeen-aldietan, lasai-uneetan... Atsedena lana aldatzea da. Bixentek bere ogibideko egin-bearrak bete ondoren, lau au osotzea artu eban atsegin-bide...

### Lagungarriak

Gazteiz'ko Seminarioan bizi izana dogu eta bertako liburutegi ederrean eban liburu-zerrenda luzea, gai oneri buruzkoa. Liburu onen asieran, bosgarren orrialdetik amargarrenerako bitartean, dakaz idazti orreik banan-banan... Sailla, luzea benetan.

Areik danak eskuetan erabili eta areitatik liburu barri bat ateratzea, orixe bai buru argi eta indartsu batentzat benetako lana... eta gozamina. Buru ergel batentzat, zorabioa.

Joseba Zubikarai Markiñako karmeldarrak lagundu dautso makiña-utsegiteak zuzentzen.

### Denbora eta garaiak

Edozein liburuxkaren egilleak esango dautzu, itzetik-ortzera, bosteun ordu bear izan dituala idazti-arazoa bere elburura eroateko. Eta gero, barriz, neurri orretan egiten ditue euren eskabideak gizarteko elkarteeri.

Zenbat ordu bear izan dozuz edesti-liburu oneik bere onera ekarteko? Erantzuna zuk emon dauskuzu ogei urte. Ogei urtez arazoa eskuartearen, irakurritz eta oarrak idatziz... Ogei urte zazpi milla eta irureun da bost egun dira... Egunak esaten ari gara eta ez, orduak. Eskerrak ez zendueta lan au ogibidetzat artu...!

Gai oneri buruz ara zer diñon liburu onen amaseigarren orrialdean Latxaga ospetsuak:

—“Pozik eta atsegin aundiz irakurri dot zure liburua. Ondo oartu naiz zuk be pozik idatzi dozula; zoriontsu izan zerala ori idazten ibilli zaran denbora guztian; egiazko gozotasuna izan dala zuretzat eginkizun au.”

Eta lana gozo egiten danean, orduan lanaren futua eta ondorena be gozoa izan oi da.

Eliza osoaren edestia gauza zabala da bai tokiz eta bai denboraz. Tokia laburtu ezin, esirik ipiñi ezin, Eliza osoa bait doa aurrera ibilli eta ibilli... Garaiak banatu bear.

Eta liburu onen garaiak bi gizaldi osotzen dabez: amazpi-garren eunkia eta amazortzigarrena. Berreun urte! “Codex Juris Canonici” egin arte, Elizaren Lege-diak liburu asko batzen ei ebazan eta, jakintsuen iritzira, “onus multorum camellorum” omen ziran, “kamelu askoren zanpagarritzko pixua” osotzen ei eben danen artean. Elizaren berreun urte alakoak liburu baten esitzea, ori ere “onus multorum camellorum” iruditzen jat. Amazoniako oianean sartzearen antzeko. Basoa ikaragarria gurdibidez eta bidetxigorrez betea eta josia...

### Nundik nora jo?

Amazonian urratsen diarduen antzeko bide zabala egin dausku Latiegi jaunak: Aita Santurik Aita Santura doan bide zabala. Andik aterako dira zearretako gurdibide eta bide txuak. Orrelan, ez dago arriskurik norbere burua oianean galtzeko.

Liburuaren gaiakin sartu baiño lenago, beste oartxo bat be esan bearra daukat. Euskera jatorraren jabe izanik, bere pentsakera eta pentsakera orren itz-moldeak jatorrak izanik, idazkeraren soiñekoa be jatorra erabiltzen dau Bixentek: Euskaltzaindiak irurogeita amabost urte luzeetan erabilitako soiñekoa.

Orain urte gutxi, gazteen iraultza bateri amor-naz, Euskaltzaindiak, bide zabala itzi, lortuta egoan batasunari bizkarra emon eta zearkako bidea artu eban; euskerari buruz, biotzekoa laga eta egalekoa artuz, eta idazkerari buruz naaspilla eta zailtasunak bear ez dirala sortuz.

Erabilten eta aroskatzen ez zan izki edo letra bat tartean sartu eben belardian karda-azia baiño ugariago, idazkera zaildu eta itsusituz, irarkola galestituz eta barritik ikasi bear dauanari eragozpenak duan ipiñiz. Antzutu sekulotan egon dan Euskeraren errapea, gaur aberatsa dogu eta esne orrek eraginda, jendeak lanean ekiten dau zailtasun eta guzti, gaitzez betetako euskera ori ikasten... Barriro antzutuko ba'litz, orduan ikusiko genduke euskalzale barri onein edorea noraiñoa dan.

Izki barria naikoa ez dala, zaarrak kendu ditue Ñ, Ll eta J eta edonoiz entzungo dozue lan-gi-lea esaten, langillea esan bearrean... Jota erditik kendu ezkeror dabiltz axolakeriak esaten eta bitartean *dijoa* aditza idatziz ezin eta orretarako h'a ipiñi jota'ren ordez *dihoa* eta aroskatzen ez dan izkia, emen jota bezela aroskatu bear... Oraingo egoerak negar-gura emoten dautsola, esan euskun joan dan asteen D. Manuel Lekuonak telebistatik...

Liburu onetan orrelako zailtasunekin ez dozu topo egingo. Euskera bera erreza eta jatorra eta idazkera be berdin: gain-soiñoa, tolestu bakoa.

Kanpotik be ondo egiña dago liburua, paper onez eratua eta moldetegiko lana, bera be, garbia eta errez irakurtekoa. Orriak, barriz, lokarriz josiak eta onek asko esan nai dau, askotan pegamentuz erazten bait dira alkarri.

Gauza bat dau eskasa: azala, Liburu onek jantzi dotoreagoa merezi leuke. Akatsik aundiena orixe dauela uste dot. Irarkolako utsak be baditu; baiña idatziz bat ortik libratzea, batez be euskeraz ba'dago, oso da gaitza eta zaila.

#### Gaia

ELIZ-EDESTI-SORIA onen gaia, denbora aldetik, bi milla urteko Eleizaren kondaira dozu eta, toki aldetik, mundu zabala. Denbora aldetik mugatu bear eta orrela edesti onen lenengo alea XVI'garren gizalditik argitaratzen asiak gara, naiz-eta gertaerak aurretik etorri: Erdi-arotik.

Erdi-aroak moldaketa luzea izan eban, bein Erri basatiek, Erromako Erresuma apurtuta, laterria barrigazteak sortu zituenetik aurrera. Orreik danak eta aurreakoak, gerora argitaratuko dira.

EDESTI onen lenengo alea joan dan urtean... San Inazioarekin alkartuta etorri zan, onek eta bere Konpañiak garai areitan izandako garrantziagaitik. Inigo, barriz, gurea da, gain-gaiño euskalduna.

Erri basatien artean Elizak begirunea eta aginpidea ba eban, jakintza, eta buruko argitasuna beragaz eukalako. Jakintza Eleizaren eskuetan izanik; gizartea bere erara eratzten saiatu zan, Jainkoa ipiñiz jakintza guztien gai. Ikastola Nagusieta, Unibersitateetan, teologia erakusten zan gairik nagusien lez.

Jakintzarekin batera agintaritzaz be Elizaren eskuetan egoan: Aita Santuenean batez be, baiña baita Gotzainenetan be. Gotzaia, "pontifex" zan: "zubi-egille", eta Aita Santua, "pontifex maximus"... Orrek esan nai dau jakintzarekin batera, ba-ebala dirua be eta agintaritzaz.

Gizadia aurrera doan neurrian, sekularrek euren adinera eldu ala, Elizaren menpetik euren buruak askatzeko irrika egozan eta ortik sortzen jake Elizaren aurreko garaletara begiratzeko gogoan: Erroma eta Greziako jakintzara eta artegintzara, jentillen bizi-moldera. Baita Eliza

beronen lenengo egunetara be. Orixe dozu Renacimiento edo Birsortzea.

Elizaren menpetik euren buruak libratzeko giro orretan, jaso eban Luterok bere askatasun-ikurriña. Elizaren aginpideetik libratzeko, errege eta printzipeengan ipiñi eban aginpidea eta orretarako euren errien Aita Santu eta Gotzai izendatu ebazan. Ortik sortuko da erregeen absolutismoa eta Estaduaren eliza. Beste aginpiderik ez dau Luterok ezagutuko Bibliarena ez ba'da; baiña, Biblia ori bakoitzak bere erara argituko dau.

Biblia orrelan irakurtzetik eta erregeen eliz-aginpedetik izugarrizko zatiteketa sortu zan Kristiandadean. Zatiketa orretatik, barriz, Elizaren eta Bibliaren mesprezioa...

Zatiketa burrukaz beteta etorren. Nundik pakea lortu? Nundik batasunera eldu? Emendik artzen dau asiera orain aurkezten dogun Sortaren bigarrena liburu onek.

Lenengo Ingalaterran eta geroago Holandan arrazoia- ren aldeko kanpaiña sortzen da pakearen eta batasunaren oiñarri lez. Fedearen ordez, arrazoa: giza-arrazoa. Jainkoaren ordez, Izadia beronen legediarekin. Jainkoak, ba'da be, ez dau Izadiaren ardurarik.

Sustrai oneitatik sortzen da Argikuntza edo Ilustrazioa. Onen ondoren Deismoa dator. Izadia berbera da jainko.

Deismotik Ateismora: ez da jainkorik.

Jainkoa jakintza-bideetatik kendu eta bere ordez Izadia ipiñi eta Izadiaren lege guztiak. Oneik dira Jakintza Barriak.

Fede barri au kirstau-fedearen aurka jarriko da; naiz- eta berez aurka egon ez. Argikuntzaren argi barri onek salbatuko dau gizadia, erriek parte artzeke. Orixe izango da *despotismo ilustrado* deritzana. Illunbeetan dagoen erri itsua argidunek salbatuko dabe. Iraultza onek despotismoa dakar alde guztietatik, erregeen indarkeria indartzuz.

Argi ori zabaltzen dan neurrian, erriko jende asko onetan konturatzen da: argiak salbatuko da'ditu ez dabela errege bearrik euren buruak salbatzeko eta ortik sortuko da Iraultza barri bat: Frantzia'ko Iraultza. Giza-arrazoa bera da jainko. Erregearekin batera aundikiak eta eliza kendu gizartetik eta burgesak jaso aginpidera...

Bi gizaldi luzetako edestia da eta bitartean Elizak zer jokabide dauan ikusteko Latiegik, lenago esan dogun lez, bide zabal bat urratu dausku Aita Santurik Aita Santura eta ortik urtetan dabe zenbait bidezear bi gizaldi oneitan Elizan bertan izan diran ezbidetazioak ezagutzeko: Jansenikeria, Galikeria, Febronikeria, Josepekeria eta abarren okerkeriak; baita masoienak be...

Garai nastau eta urduriak, gaur eguneko zenbait okerren sortzaille eta sustrai; baiña, garai onein eta aurrekoen barri beste iru liburuetan agintzen dauskuz Latiegi jaunak.

Eta, amaitzeko, ona barriro Latxaga'ren itzak:

"Lan ederra egin dozu; bikaiña; argiñen lana. Arriz- arri arreta aundiz, poliki eta dotore landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan biziro egokia".

Artu liburua eta ao-gozatu patxara onean. Onenbes- tez naikoa dogu. Esaera zaarrak diñonez: "gaizki esan- nak barkatu eta ondo esanak gogoan artu".

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itzaropena oztopoen gainetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**